

bidegileak



Manex Goihenetxe (1942-2004)

Egilea:

JEAN LOUIS DAVANT

*M*anex Goihenetxe zena Garaziko Ezterenzubi udalerrian jaio zen, Intzagaraia baserri etxean, 1942ko irailaren 22an. Bost haurridetatik laugarrena zen, azken semea. Aita Gratien Goihenetxe, etxe horretako nagusia, ama Catherine Etxamendi, Ezterenzubi Mendiburuko alaba, Eñaut Etxamendi idazle-kantari ezagunaren izeba. Nekazari etxea da Intzagaraia, mendikoa, seiehun metro gora kokatua Errozate gailurraren (1.345 m.) hegalean, Orreaga eta Zuberoako hegien artean, Okabeko hiliarritatik eta Iratiko basotik hurbil. Menditarra zen beraz gure Manex.

Menditarra eta mendizalea. Pirinioetan elurra lodi zen eta bigun 2004ko maia-



Manex Goihenetxe Etxamendi (1942-2004)

tzaren 2an. Hala ere Manex abiatu zen Biarnoko tontor malkartsu baten erasoan, beste mendizale batekin. Biharamunean biak aurkitu zituzten, gorputz, malkar baten zolan, goratik jausiak. Maite zuten bortuak beretu zituen. Alta bada Pirinio, Alpe, Andetako gailurretan luzaz ibilia zen Manex Goihenetxe. Ondoko udazkenean bere 62. urtea beteko zuen. Errozate mendiko hegi batean daude haren hautsak. Zaindaria dute, harpe batetik, Zigor olerkariaren eskultura bat, Iratiko basoari begira. Bien artean Xurrustako artzain etxola: Intzagaraikoa.



Goian Manexen hilobia, behean Xurrusta ur-jauzia,
bitartean Labea mazela

Bizitzako urratsak

Lehen mailako ikasketak burutu zituen Ezte-
renzubiko eskolan, bigarrenekoak hasi Doni-
bane Garaziko Maiorga ikastetxe katolikoan
eta bukatu Donibane Lohizuneko Béthanie
lizeo katolikoan, Ploermeleko fraide irakas-
leen gomendioan. Batxiler atera zen 1963an
Rennes Bretoniako hiriburuan.

Fraide izateko lehen botoak egin zituen
1962an, eta osoak 1967an. Fraide izango da
1972raino, eta bitartean ez du denborarik
galduko. Soldadu zerbitzua 1967ko urtarril
ondarrean bukatu du Okzitaniako Tolosan,
erizain karguan, hiri horretako Unibertsitate
publikoan historiako lizentzia lortu du
1969an, Pauekoan maisu diploma 1981ean,
D. E. A. delakoa ere hor 1982an, doktoregoa
halaber 1984an. Bitartean, 1976an, euskara
eta euskal kulturako ziurtagiria lortu zuen
Bordelekoan.



Intzagaraia sortetxea mendi aldean



Xurrustako artzain etxola: Intzagaraikoa

Bigarren mailako irakasle izango da Ploermel-eko fraideen ikastetxeetan sei urtez, 1966tik 1972ra, lehenik Lurden hiru urtez (1966-69), gero Donibane Lohizunen biez (1969-71), azkenik Bretainiako Chateaulin hirian ikasturte batez (1971-72). Euskal Herritik urrundu zuten bere buruzagiek, dirudienez honi zion atxikimendu «handiegiagatik». Handik ultimatum bota zien gure Manexek, Euskal Herrira itzularaz zezaten, bestela fraidegoari uko egingo ziola. Haiek ezetz erantzun, eta Manex joan zitzairen, hitzemanen bezala. Oloroneko lizeo publikoan irakasten ariko da 1973-74 ikasturtean, eta berriz 1976an.

Euskal politikan sartu zen *Enbata* mugimendarekin, honen azken urteetan, bereziki 1972an eta 1973an, Frantziako gobernuak debeka zezan arte 1974ko urtarril ondarrean. Jarraian EHAS alderdiaren sortzaileetatik izan zen Manex, baita buruzagi eta sustatzailer onenetatik ere 1981eko udaberriraino, hor bere nahiz ezabatu baitzen EHAS. Langile porrokatua zen Manex, etenik gabekoa, euskal militantziako sail eta maila guztietan sartua, lan xumeenetatik hautagai eta kazetari karguetaraino. Parte handia hartu zuen *Euskaldunak* izeneko EHAS-en hilabetekarian.



Manex txikia, amaren besoetan

Kulturaren alorrean ez zuen gutiago egin, *Ikas* elkarteko idazkaria izan zen luzaz Baionan (1972tik 1983ra). *Ikasek* eta Euskaltzaindiak elkarrekin sorturiko UEU, hau da Uda-ko Euskal Unibertsitatea, kudeatu zuen urte andana batez, *Ikaseko* idazkari karguan, Haritschelhar jaunaren ardura pean, *Ikaseko* lehendakaria baitzen, baita euskaltzainburordea ere. Manexek UEUko ikastaroak an-

tolatu zituen 1973an eta 1974an Donibane Lohizuneko Maurice Ravel lizeo publikoan; 1975ean eta 1976an Uztaritzeko Landagoien bil-etxean. Gero hiru urtez UEUko zuzendari izan zen Manex Goihenetxe (1977-78-79).

Beti Euskaltzaindiaren eta *Ikasen* ardura pean, Haritschelhar buru, Baionako Museo erakustetxean antolatu zituen, 1981eko larrazken-udazkenean, «Euskararen eta euskal kulturaren jarraldiak». Idazkari eta kudeatzaile zen hor ere Manex Goihenetxe. Hortik atera zen liburu zuri bat, «Pour un statut de la langue et de la culture basque» delako izenburuarekin: geroztik horretan oinarritu dira Akitania eskualdeko euskaldunon eskari guztiak.

Seaska elkarteko lehen langile finkoa izan zen Manex Goihenetxe lau urtez (1977-1981). Gero *Seaskako* ikastoletan bigarren mailako irakasle erretiratu arte, 22 urtez (1981-2003): Baionan bi urtez (1981-83); Kanboko lizeoan 18 urtez (1983-2001); Baionakoan ikasturte batez (2001-02); Ziburuko Piarres Larzabal ikastetxean azken urtean (2002-03).

Paueko *Ecole Normale* lehen mailako irakaslegaiaren eskolan ikasgai batzuk eman zituen 1982-83 ikasturtean. Bestalde *Seaskako* ikastola sarean, lizeo zuzendari izan da Manex lau urtez: lehenik bi urtez Kanboko *Xalbador* ikastetxean (1992-94); gero, beste biez Baionako *Bernat Etxepare* ikastetxean (2001-03).

Baionako Fakultatean historia irakatsi du doktore titulua ardietsi zuenetik (1984). Bi tesi egin zituen, epaileen oniritzia merezituz Paueko Unibertsitatean: lehenik, III. zikloko tesia: *Analyse critique du for moderne de Basse-Navarre* (1984); gero, formula berriko tesia: *Analyse critique de l'historiographie basque du XVI^e au XIX^e siècle* (1992).

Argitxu Noblia anderearekin ezkondu zen 1975ean Baionako udaletxean. Hamar bat urteren buruan bereizi ziren. Bitartean seme bat izan zuten, Ortzi (1976-95), tragikoki zendu zitzaiena batxilergoko urtean. Aitarekin mendigoizalea zen.



Manex haurrean (umetan)

Euskal politikan

Manex Goihenetxek eta nik ezagutzak egin genituen Burgosko auzi denboran, 1970eko abenduan. Ilunabar lanotsu batez gertatu ginen parean, Baionako karrika ilun batean, auziperatuen alde ibilki, bidenabar aldarri batzuk oihukatuz. Lehenbiziko manifestazioa zen, kale agerraldi argala. Baina gu han ginauden, eta gero ere maiz horrela gertatuko zaiagu. Gero hamar urtez elkarrekin lan egin dugu Manexek eta nik, beste bakar batzuekin, abertzaleen mugimendu politikoan. Erran dezaket uztarriko lagunak izan ginela biak, idi eta behi pare guti baitzabilan orduan euskal politikaren alor idor eta gure ahalen arabera zabalegian.

Lehenik *Enbata* mugimenduan ari izan zen hiru urtez. *Enbata*ren azken urteak ziren, urte gogor eta hotzak, nahiz euskal aferak ez diren eztituz joan geroztik. Baina erran berri dudan bezala, guti ginen orduan, eta beti berbizkarretara erortzen ziren karguak eta kargak, lanak eta zamak, auziak eta debekuak. Aberri Egunak ere debekatu zizkiguten bi urtez: 1971n Donibane Lohizunekoa, eta 1972an Maulekoa. Bigarren hau Manexek antolatu zuen eta kudeatu, poliziaren eta justiziaren mehatxuen artetik. Azkenean Frantziako gobernuak *Enbata* mugimendua debekatu zuen 1974ko urtarril ondarrean. Ber izeneko kazeta berpiztuko zen urte baten buruan.

EHAS, Euskal Herriko Alderdi Sozialista, 1974ko hedatse-udaberrian sortu zen. Euskal Herri osora hedatu zen, mugaren bi aldeetan. Haatik bere autonomia bazuen hor iparraldeak, halaber hegoaldeak bere aldetik. Bakoitza bere buruzagitza bereziarekin bazabilan bere alorrean. Baina goian biak elkarri lotzen zitzaizkion. Manex buruetatik izan zen beti. Politikan orokorki *Enbataren* jarraipena hartu zuen EHASEk, 1963an Itsasun finkaturiko bi helburu eta jomuga nagusiekin: batetik euskal departamendua eta euskara, bestetik Euskadi Europako partaide. Haatik departamenduaren xedea zabaldu zuen EHASEk departamendu-eskualdearen eskaerara: Akitaniako eskualdeak zituen ahalmenak ere aldarrikatu zituen iparraldeko euskal lurraldeentzat.



Manex etxolan, familiako giroan

Sozial aldetik, *Enbata* baino aitzinago joan zen EHAS. Mugimendu frentista zen *Enbata*. Sozialismoaren hautua egin zuen aldiz EHASEk argi eta garbi: sozialdemokraziaren eta ezker muturraren artean kokatu zen bere ideiez. Hor gustura zebilan Manex. Baina *Enbatan* ere langileen alde agertu zen, haien borroka sustatuz eta haien berriak emanez berizeneko aldizkarian.

Deusen beldurrik ez zuen Manexek. Militante gogorra eta segurua zen, iraunkorra, hats luzeko gizona. Lan mota guzietara plantatzeko gerturik zegoen beti: karrikan orrialde banatze, afixa inkatze, horma eta galtzada tindatze, bilkura, mintzaldi, artikulua, kazeta toleste baita hedatze, bozka eta abar ere. Iduri zukeen beti horretan ari izana zela, eta ez zuela behinere beste lanik egin. Bi eskuez ari zen hor! Baina beste lan askotan ere parte hartu du, bereziki euskaigintzan eta historiagintzan, iduri bailuke Indiako jainko eta jainkosa batzuek bezala, beso pare andana bat bazuela.

Holakoa zen euskal politikan hamar urtez ezagutu dudana Manex Goihenetxe. Azken mende laurden hontan eremu hortarik urrundu naiz gero eta gehiago. Manex ere dirudiezez. Halere kontseilu orokor edo jeneraleko bozketan hautagai agertuko da abertzaleen izenean, Angelu hegoaldeko kantonamenduan, 1999an.



Manex gaztea

Karia horretara erran zuena zinez adierazgarria zait: «Gaskoiak etxean daude Angelun, baita euskaldunak eta beste guztiak ere. Nazionalismo oro arbuiatzen dugu, holakorik ez dugu nahi. Abertzaletasuna zerbait berezia da, ibilera herritar bat, herri hau, gure aberria eraiki nahi duten guztiak biltzen dituen. Guretzat edonor, edonondikoa, Euskal Herrian bizi bada eta hemen lan egiten badu, etxean bezala dago Euskal Herrian, euskararen eta euskal kulturaren aldeko gogoia besteekin errespetatzen, sustatzen eta banatzen duen ber. Egiatzko harrera-hitzarmen bat gutiziatzen dugu».

Hor agerian dago Manexen ideologia, zinez idekia naski, etsaiek eransten diguten hertsieria eta arrazakeriatik anitz urrun.



Manex gaztetan, Joanes anai gehienarekin

Haatik ez zen inozoa gure Manex: Angeluko gaskoien izenean mintzo ziren politikariek mesfidatu zen beti, arrazoi osoz. Bazakien euskaldunen aurkako herra, gorrotoa zela horien erregai nagusia. Gaskoien hizkuntzaz eta kulturaz axola guti zuten, horien alde gauza guti egiten zuten. Mugitzen zirelarik, euskararen aldeko urratsen oztopatzeke zen, berdintasunaren izenean. Angeluko udalak adibidez, euskarari ezin zion inolako laguntzarik ekarri, gaskoien okzitanierari ber heinekoa eman gabe, horren onerako inork ekintzarik batere bultzatzen edo arrazoitzen ez zuelarik ere.

Beraz gaskoien izenean mintzo zirenekin harremanak atxiki eta ahalaz hobetu nahi bazituen ere, ber denboran aholku hau ematen zien Angeluko euskaltzale lagunei: kulturaren aldeko politika ez ziotela gaiskoizaleenari uzartu behar, haien eskariak botere publikoei



KIMUA Angeluko ikastola
Jouanetote karrika, 52 ean
64600 ANGELU

Angeluko ikastola "kimua" elkarteak biziki hunkitua da
Manexek ekarri daukum elkartasunaz.
Guri orain "kimua" garatzea eta azkartzea Angelun.
Haur, anderño, langile, buraso eta bulegoko kide guzuen
partez, milerka bihotz bihotzetik eta aurrera berot.

Angeluarra ere bazen Manex irakaslea



Intzagaraiko 5 haurrideak aitamekin etxe ondoan

buruz oso minimalistak baitziren, baita obrak araberan, euskaldunen frenatzeko gogoz ere geldoagoak. Eta beharrik, hiriko euskal mugimenduan ongi entzuna zen Manexen aholku zuhurra.

Ber denboran hain ezkertiarra zen Manexek frantsez ezker ofizialeko hautetsi eta kide jakobino batzuk zituen etsai gogorrenak, hain zuzen ere euskaldunen aurkako herrak eta gorrotoak bultzaturik.

Euskaltzalea

S datzi dituen hamasei liburuetatik, bat bakarra da euskaraz, *Lapurdi*. Haatik berrogeita sei artikulua mardul eta ikerlan lodietatik hogei, hots kasik erdia, gure hizkuntza nazionalean.

Seaskako ikastetxeetan, hizkuntza horretan irakatsi zuen historia. Gainera, beti euskaraz ez bazen ere, euskararen zerbitzukoia izan da euskal elkarteetan egin duen lan erraldoia, hots *Ikas*, *UEU*, *Seaska*, ikastetxeetan egin duena idazkari, langile finko, zuzendari postuetan.

Euskal politikan ere, euskara zuen bultzatzailea, hura zuen oinarria. Bes-



Manex pentsalari

tela zeren bila Euskal Herriaren beregaintasuna? Askoz ere normal eta erosoago zutkeen frantsez ezkerrean jardutea sozialismoaren alde.

Beste askok bezala, euskara zuen aberria. Hizkuntzaren inguruko «matriotismo» apolitiko batean haziak ginen, Victor Hugoren ahapaldi sonatu batek salatzen duen bezala: «La langue basque est une patrie, j'ai presque dit une religion» (Euskara aberri bat da, kasik erran dut erlisio bat). Bai, Hugok gure izaera sakona maisuki azaldu zuen!



Manex!

Euskara da iparraldean abertzaletasunaren iturria, eta ez politika, ez Sabino Arana Goiriren foruzaletasuna: ez genuen ezagutzen, ezta forurik izan zenetz ere, edo hain guti non ez duen merezi gehiago aipatzea.

Manexek ere, euskaraz egiten zuen arnasa hartzen zuen bezala. Beraz ibileraren oinarrian zuen hizkuntza, eta naski, jende guziek bezala, sorlekuari zion atxikimendua, bereziki bere mendiari zion maitasuna. Baina zubere-raz diogun bezala, «lurra peza oso da», hots bakuna, eta mendi guziak maitatu zituen. Aldiz euskara geurea dugu, hori da zinez euskaldun egiten gaituena. Arimaren ama dugu. Argi zuen Manex Goihenetxek. Hain da nabarmena non ez diodan frogatzeko beharrik ikusten. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1975ean. Eusko Ikaskuntzako kidea ere bazen.



Aitamekin Pagolako pilota plazan

Historialaria

Frantziako historiaren irakasle jardun zuen urte andana batez bigarren mailan, frantsesez bistan dena. Gero Euskal Herriko historiaz idazten hasi zen 1974an, EHAS alderdia sortu zen urtean. Panfletoak izan ziren haren lehenbiziko hiru liburuak: *L'oppression culturelle française au Pays Basque* (1974); *Histoire de la colonisation française au Pays Basque* (1975) eta *Pays Basque nord: un peuple colonisé* (1979). Tituluek argi eta garbi aditzera ematen duten bezala, Frantziak iparraldeko hiru euskal

lurralde historikoetan deraman politika ukatzalea gogorki salatzen dute liburu horiek.

Eugène Goyhenetxe historialari sonatuak kritika saminak egin zizkion gazteari, zorroztasunik ezagatik. Aprendiz guztien ajeak dira horrelakoak. Nonbaitetik hasi behar da eta, besteek bezala, burdina zanpatuz ikasten du historialariak ere. Bidenabar historialari sakona bilakatu zen gure Manex, artxiboetara joanez, iturriak ikertuz, euskal historiagintza libratuz, bai mito zaharretatik, bai gaurko anakronismo, nazionalismo, marko eta ideologia prokustotiar batzuetatik.

Ofizioa ongi bereturik afizioa galdu gabe, damutu zen bere lehenbiziko liburuez. Hileta



Liburua: militante gaztearen kimua


egunean, Baionako San Andres elizan, honela kontsolatu zuen Pello Etxeberri-Ainxartek:

Zuhaurek onartzen zenuen bezala, lehen urrats horiek ez ziren baitezpada hobere-nak izan: 70(eko) hamarkada zen. Garai berezi hartan, dena frogatu behar zen. Berezi-ki frogatu behar zen Euskal Herrian ginela, eta herri honek bere historia bazuela. Fro-gatu behar zen gure historia hori gorde (iz-kutatu) zaukutela, ebatsi (ostu, lapurtu), ezabatu. Baitzekiten memoriorik gabeko herri bat ez dela herri bat. Garai hartan, iragana aztertuz erakutsi behar zen herri zapaldua ginela, herri kolonizatua.

Zure lehen liburuak halakoak izan ziren, panfletoak zientzia liburuak baino gehia-go. Gibelapenarekin (atzerapenarekin) hori onartu zenuen. Erraiten zenuen berriz egin behar izan balitz ez zenuela horrela egi-nen. Bainan lasai Manex! Ez da damutze-rik. Geroztik erakutsi daukuzu Euskal He-rrian ere ikerkuntza historikoa zientzia bezala eramaiten ahal zela, eta hoberene-tarik bat zinela hortan. Eta ez ditzagula bota egin zenituen *L'oppression culturelle française au Pays Basque* eta *Pays Basque nord, un peuple colonisé*; nik, errespetu han-diz kontsideratzen ditut, gure herriko his-toriaren memento hartan beharrezkoak baitziren, lo zegoen herri bat iratzarrazi behar baitzen. Lo den herri bat ez baita bere iraganaz, ez eta bere geroaz ere axo-latzen. Eta gaur segur naiz jende frango militante bihurtu bada, hein batean liburu horiei esker ere dela.

Baina laister ulertu zenuen historiarekin ez zela trixatu eta ziria sartu behar. Iraganaren ezagutzak oraina eta geroa argitzen zituela eta ez genituela gezur batean oinarritu behar. Baina garai hartan, gure herriko zientzia historikoak basamortu bat iduri zuen, zernahi erraiten zen Euskal Herriaz, nehor ez baitzen gai, edo sobera jende guti, egia oroitarazteko. Eta denak ginen errudun; bai frantsesak, Matalas ahalgerik gabe ahanzten zutelarik; bai euskaldunak ere, Matalas lehen gudari abertzaletzat hartzen genuelarik. Zapaltzaileen aitzinean eta zapaltzaileen historiaren aitzinean, Euskal Herriko historia ideala erakutsi behar zen, historia idealizatua. Beste hainbat herritan gertatu zen bezala, historia nazionalaren normalizaziorako bidean ezinbesteko urrats bat balitz bezala. Guk ere, gure Jeanne d'Arc edo gure Vercingétorix aurkitu behar genituen. Zuk, Manex, ez zenuen holakorik nahi.

Egia da: Manexek ez zuen gehiago holakorik nahi izan, esperientziari esker ikasi ondoren. Ez zen modako intelektual arin, zalu, sotil, distiratsu horietatik: gaiaren eremua berehala korritzen dute gainez gain, puntu premia-tsuenak ikusten dituzte hasi orduko, bista-koenez jabetzen dira behako bakarrean, eta berdin aise azaltzen dituzte argi eta garbi. Baina frankotan azaletik dabilta, arrazoiaren meneko dauden zubietatik, sakonean gehiegi sartu gabe. Teoria zinez ausart eta sinpleak asmatzen dituzte, haiez denak esplikatzen, ñabardurez eta salbuespenez axolatu gabe.




Nafarra dugu Manex

Etsenplu potolo baten hartzeko euskal pentalaririk zauritu gabe, holakoa zen adibidez, ene uste apalean, historiak ere jardun zen Voltaire handia.

Manex erroen bila zebilan, horretako behar den denbora hartuz, eta dena zilatu arte bakarrik ez zuen. Gero harrizkoa zen haren eraikuntza, orokorki fidagarria, lokarri sendoetan oinarritua.

Oinarri horietatik bat, ahalik eta hizkuntza gehienik jakitea. Berak zazpi bazituen ikasiak; frantsesa, latina, ingelesa, gaztelania, gaskoi-okzitania, nafar-aragoiera, eta bistan dena

euskara. Euskal Herriko historiaren ezagutzeko, hizkuntzak jakin behar zirela zioen. Dokumentu gehienak ez dira euskaraz, baina beste sei hizkuntza horietan. Haatik azpimarratu nahi nuke euskal hitz asko badagoela bereziki Nafarroako paper zaharretan. Gainera historiaren ezagutzari asko ekar diezaioke euskarazko literaturak. Ez zait iduri hartaz axolatzen direnik historialariak, salbuespenez kanpo. Alde horretarik uste dut beste gehienek baino gehiago egin duela Manex Goihe-netxek, euskalduna izanez eta hizkuntza horrez Bordeleko Unibertsitatean ikasia.



Gure historia orokorra: 5 tomoko lana

Euskal Herriko historiaz hamabi liburu idatzirik, horren historia orokorrari lotu zitzaion. Sail horretan lau liburu agertuak zituen herioak jo duelarik. Bosgarrena ongi hasirik utzi du, eta idazle andana batek burutu dio 2005. urtean. Horrez bukatzen da Manexen *Histoire Générale du Pays Basque* delakoa.

Zerrenda horretarik bazter, *Ikas* elkarteak plazaratu dio haurrentzat *Erdi Aroa Nafarroan* liburuxka ikusgarria, irakaslearen gida liburuarekin. Gainera ikastoletako ikasle handientzat, Euskal Herriko historia orokorra bildu gogo zuen, euskaraz, liburu bakar batean.

Bestalde Antso Handiaren oroitzapenetan agertu den liburu batean parte hartu du, hau



5.a hasi zuen eta lagunek bukatu genion

delarik *Euskal Herria* XI. mendean, Antso III.a Nagusiaren erregealdia (1004-1035). Nabarralderen ardurapean, Pamiela etxeak argitaratu du euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez, hiru liburukitan: *Ipar Euskal Herria Antso Nagusiaren garaian*: liburuaren herena betetzen dute Manexek ikerturiko dokumentuen laburpenek eta horiez egin dituen oharrek.

Liburu horiei guzietan gehitu behar zaizkie historiaz egin dituen mintzaldiak eta idatzi dituen artikulak mardul, ugariak, haren irakasle lan erraldoia ahanzi gabe!



Manex Artaxoako harresian ikasleekin

Irakaslea

Histoire d'Anglet liburuaren aurkeztean, bere lanaz honela mintzatu zen Manex Goihene-txe: «Idatzi badut, gehiengo handiarentzat izan da, eta ez berezilarik bakar batzuentzat. Idatzi nahi izan dut liburu bat ez lodi-egia, ez tekniko-egia ere, baina iragan aberats baten azaltzeko aski mamitsua halere. Ber denboran lan horrez omendu nahi dut nekazarien mundu apala, horretarik izen guti atxiki baitu historiak. Historiaren harira itzuliz, gure erroak ere berriz aurkitzen ditugu, nortasun bat eta batasun bat eraikitzen».

Historiaren ikertzean eta idaztean zuen filosofia hori bera hazi du nik uste irakastean: hots historiaren maitaraztea eta ezagutaraztea ahal bezain argiki. Haatik pedagogiaren kezkak, ahal bezain ongi komunikatzeko ardurak ez zion behinere kentzen zorrotasun, zehaztasun ez eta sakontasunik. Horren lekuko ditugu haren ikasle ohi batzuk. Horietatik bietara mugatuko naiz hemen.

«Baionako fakultatean irakasle ezagutu nuen Manex. Klaseak ongi prestatuak, beti zorrotz, baina ikasleongandik hurbil. [...] Historia sakonki ikertzearen beharra azpimarratzen zuen, Euskal Herriaren historia ezagutarazi eta barneraturik genituen hainbat mito deuseztatzeko beharraz jarduten zuen. [...] Letra larriz idazten den historian herri xehearen tokia izan zuen luzaz aztergai. Euskal Herria bere osotasunean hartzen zuen, hala

bere lanetan nola bere eskoletan ere. Historialari metodikoa, artxibo lanaren garrantzia bai ikerketa metodoaren beharraz jakitun. Eta historialari zorrotza: begiratu kritikoz testuak irakurri beharraz ohartarazi, historiaren kronisten engaiamenduaz jabeazten zigun ikasle garaietan.» (Aitzpea Leizaola, *Berria*, 2004-VII-9).

Nona Arbelbide kazetariari erantzunez, iritzi hau ematen du Pello Etxeberri-Ainxartek Paueko Unibertsitatean ezagutu zuen Manex historialariatz: «Bere karreraren hastapenetan militantea zen. Militante politikoa. Historia eta politika sobera nahasi zituen, behar-

bada. Ondotik, bi bideak segitu zituen, baina biak bereiziz. Historiagintzako lana zientzilari baten gisa eramaten hasi zen. Iturri guztiak bilatzen zituen eta konfrontatzen. Euskal Herria ezagutaraztea zen bere nahia, baina idealizatu gabe. Herriaren alde onak eta txarrak aipatzea beharrezkoa zela zioen. Dena frogatuz. Beti ari zen erlatibizatzen. Batzuetan gogaikarria ere izan zitekeen, (ikaslea) nahasten baitzuen bere detaile guztiekin. Baina hark ikerketa ez dela sinplifikatzen ihardesten zuen. Alde horretatik anitz ekarri du. Zientzia historikoa normalizatu du Ipar Euskal Herrian» (*Berria*, 2004-V-5).



Manex lagun minekin zoriontsu

Historia nazionala

Esuskal Herri osoaren historia nazionala idatzi nahi izan du Manex Goihenetxek. Ordurarte lurralde historiko berezien iragana ikertu zen, eta hortik hasi behar zen duda gabe, horretan ez gelditzekotan ordea. Azpimarratzekoa da bereziki Eugène Goihenetxeren obra erraldoia, eskualdeen bitartez atea idekitzen baitio bere kasik homonimo gaztearen lan lotuagoari, *Le Pays Basque* liburu mardulean ikuspegi orokor batzuk aurreratuz.

Manex gure historia orokorrari lotu zaio beraz, gure lurralde guztiak ureztatu dituzten isuri zabal eta luzeak



Maisuak ikasleen maila aztertu behar...

ikusiz beren jario sakon eta iraunkorretan, Fernand Braudel baten modura, funtsean Oihenart handia bere denboran saiatu zen bezala, baina gaurko ahalmenak, bitartekoak eta ikuspegiak jokoan sartuz, gehi bistan dena geroztik igaro diren hiruzpalau mendeak.

Historia nazionala bai, haatik ez nazionalista! Horretan ez zituen imitatu nahi Frantziako eta Espainiako historia ofizialak, beren Estatuak betidanikoak bezala aurkezten dituztelarik, oraiko mugen barnean dituzten herri

eta jendeak hastetik beren naziokotzat hartuz. Historia eta politika ez zituen nahasten (salbu aprendizgoa egin zuen garai gaztean), ezta iragana orainarekin ere, nahiz elkarrekin ikustekorik baduten. Historia sakonki aztertu nahi zuen, egiazki zen bezala, Euskal Herrikoa ere zientziaren mailara hupatuz.

Historia nazionala berriz ere, haatik ez jakobinoa, anitza baita Euskal Herria, Erdi Aroan eta Berpizkundean Baskoniatik eta Nafarroatik atera ziren zazpi lurralde historikoeekin, gaur ofizialak diren hiru eskualdeen barna, hiru legedia ezberdinen gainetik, edo azpitik.

Historia nazionala, baina zientifikoa, ez nazionalista, ezta jakobinoa ere: argi ziren zuta-beak Manexen espirituan, agerian daude haren lan erraldoian.

Gainera Euskal Herri osoko historia iparraldetik hartzen du. Puntu hori ez da huskeria bat, hegoaldetik orain arte zinez gutietsi baitira gehienetan Akitaniako euskal herriak eta herritarrak. Manexek erakusten digu adibidez Baskoniaren denboran, iparraldetik zegoela baskoien indar nagusia, Antso Handia gailendu arte. Manexi zor diogu beraz iberriar hutsa ez den historia orokorra: historia nazionala, haatik ez jakobinoa.

Manex Goihenetxek «ikuspegi orokor bat eman nahi zuen, baina ez irizpide politikoe-tan oinarriturik, egitate historiko batean baik; dokumentuek azaltzen duten errealitatean, gunere berean jarritz, Euskal Herri baten



Manex historiako lanetan alai

historia egiteko, ez Euskal Herriko lurraldeen historiak egiteko». Baina historia hau anitza da Manexentzat: «Historiak ekartzen duena da Euskal Herri hau izan dela bere historian anitzetako. Lurralde bakoitzak ukan duela eta baduela bere nortasuna, bere egoera historiko berezia, bere indar sozial-ekonomikoen berezitasuna... nortasun hori kontuan hartu behar da; historiak egin du. Horrek ez du erran nahi herririk ez dagoenik. Herri bat badago, baina egoera anitzetako dena. Niretzat bederen, hori zorion bat da».

Josu Chueca historialarik dioenez. Manex Euskal Herria osotasunean aztertzen duen



Manex mendizalea Alpeetan, Xan Hiriart adiskidearekin

historialari bakarra da. «Gehienok lurralde jakin bat edo arazo jakin bat aztertzen dugu, baina Goihenetxek Euskal Herria oso-osorik hartzen zuen kontuan, eta, Antzin Arotik hasita XX. mendera iristen hasi zen; ez, gainera, azaleko lanak egiten, lan sendoa egiten bai-zik, funtsezkoa. Horretan bakarra zen.» (*Berria* egunkaria, 2004-V-04).

Joseba Agirreazkuenagarentzat ere, «Manex iparraldeko historialari handien leinukoa dugu, euskaldun guztien iraganaz eta geroaz arduraturik. Horretan ari zen buru-belarri azken urteotan, publiko zabalarentzat eta adituentzat, bereziki, Euskal Herriko historia orokorra lantzen [...] Euskal Historialari nazionala izendatu da Manex, baina euskal jakobinismo gabekoa zela, ez dut zalantzarik, zorionez, euskaldun eta euskal herri ugari daudela idatzi eta adierazi baitzuen» (*Berria* egunkaria, 2004-V-07).



Ortzi semearekin: mendizalea hau ere

Iragana eta geroa

Iraganak geroa ezin du diktatu, baina harri batzuk ematen dizkigu, etorkizunaren eraikitzeko. Beraz euskal harri zahar eta sendoak bil ditzagun: ekei berriekin batera, asko balio dute aitaren etxea zutik egon dadin amaren lurrean eta ama hizkuntzan.

Harri asko ekarri digu Manex Goihenetxek. Haren liburuek merezi lukete euskaraz itzultzea, baita gaztelaniaz eta ingelesez ere. Itzultzaileak ediren daitezke. Ikusi behar dirua nondik atera daitekeen.

Beste askoren egiteko gai zen Manex, osasun handia baitzuen, mendiko istripuak ez balu beretu. Hutsune nabaria utzi du. «Galtze



Manexen irria...



Glaziarren erasora laister

handi bat izan da oraino proiektu anitz zeukalako, oraino fruitu anitz emango zigulako, lan balios anitzen xedea zuelako, haren nortasunak eta ikusteko moldeek euskal kultura eta jendartea oraino gehiago aberastu zezaketelako.» (Eneko Bidegain kazetari gazteak 2004ko maiatzaren 6ko *Berria* egunkarian).

Bezperan, ber kezka errana zuen Gexan Lantziri (Alfaro) kulturako militante helduak, haatik aterabide batzuk igarriz bezala: «Eta historia sail hau bururatzeko, euskarazko bilduma bat idazteko xedetan zen euskal kolegio-lizeoei zuzendua. Berau izanen zuelarik

euskaraz idatziko zuen bigarren liburua. [...]. Ene ustez, euskal historiaren ikertzeari esker argitu eta zabaldu zuen, 80. hamarkadatik aitzina bereziki, euskal kultura eta abertzale mundu ttipiaren ikuspegia. Agian, ikertzaile gazte bat abiatuko da berak hain barnatik urratu duen bidetik [...]. Seguru nago, nihauk bezala, hurbiletik ezagutu duten beste askok, berarekin ikasi dugula gure euskaltasuna eta abertzaletasuna barnagotzen eta Europatik mundura zabaltzen. Bere sorterriko erroak sendo dauzka, baita unibertsaltasunera heltzen» (*Berria*, 2004-V-5).

Manexek berak arrangurak bazituen geroari begira, ikusirik iparraldean zein pobre garen historiagintzan. Honela dio Joseba Agurreazkuenagak Berriako bere artikuluan: «Kezaturik zegoen. Sarritan adierazi zidan ez zuela talde edo pertsonarik, jarraipenari eusteko, egitura egokirik euskal historialari profesionalentzat iparraldean ez zegoelako. Historiaren arautu gabeko ildoari eusteko ardura hartu beharko genuke, unibertsitariok behinik behin, hori bailitzateke haren gustuko eta aldeko laudorio eta gorazarrerik preziatuena».



Goiko harpean Manexen hilobia hegoaldera, Iratiko basoari begira

MANEX GOIHENETXE HISTORIALARI JAKINTSUNA



Tipl-tpitlik mendia biziki umate zuen eta azko-
nean mendiak bildu du :
Manex Goihenetxe fama handiko historialaria Biarnoko Biscan mendian hil da, elauso tzar batek azpian atxemanik. Errekontu berean hil da **Anne-Marie Pargade**. Hazparran bizi zen xuberotar bat.

Igande goizean, biak elgarrekin joanak ziren mendirak. Bien gorputzak astelehenean atxeman dituzte jandarmek. Itxura guzien arabera, kasko batetik atera zuten eronko bat ikaragarria...

Manex Goihenetxe **Esterrenzubin** sortua zen, aspaldian Angelun bizi. 62 urte zituen. Euskaltzale eta abertzale suhar bezala ezagutua zen. **Udako Euskal Unibertsitatearen** lehena, 1976-etik 1979-rat. Azkenik

Idazkari nagusi izana eta gero hiru urtez zuzendari, Baionako Bemat Etxepare kastegiko zuzendari.

Politika mailan, EHAS alderdiaren sortzailetarik izana.

Bainan oroz gaitetik **historialari** bezala bildua zuen gaitzeko fama. Euskaraz edo/eta frantsesez argitaraturik liburu asko. Lehenetarik, 1985-ean, Baxe-Nabarreko egitura xaharrez. Geroztik, beste frango, Lapurdi probintziak, Baiona eta Angelu bi hiriez... Oroz gaitetik Euskal-Herri osoaren historiaz, lau liburu ja agertuak, bosgarrena, herenazigaren mendeaz, orraztatzen ari helduden ekainean plazaratzeko. Azpimarratu behar dena, bakarra zela bere ikasketak Euskal-Herria bere osotasunean hartuz akulatzen zituena.

Manex Goihenetxe euskaltzain urgazle ere zen.

Berri latza hedatu zen, oroitzapena piztuz

La République DES PYRÉNÉES

Jeudi 3 mai 2012 PYRÉNÉES PRESSE 4 - 12 000 - 1 014

DEUX PYRÉNÉISTES TUÉS EN OSSAU



Deux randonneurs, Marc Uchide, 60 ans, ingénieur de Montory, et Jean Geyheretche, 62 ans, d'Angles, ont trouvé la mort dimanche sur le pic du Biscan. Les pompiers du groupe montagne et les gendarmes du GPMH (photos) ont été mobilisés hier matin pour retrouver les corps.

Berri latza: mendiak beretu du!



Manexen hautsak Errozaten ereinak

Testamentu literarioa

Manexi berari hitza ematen diot zuzenean, edo hobeki erranik berak idatzi zuen artikuluan baten bitartez. Titulua: «Euskal Herriko historiaz zer da iragan erreala?» Iruñeko *Jerónimo de Uztariz* aldizkarian agertu zen, 19. zenbakian, 2004ko udaberri hartan. Manexen ordenu eta testamentu literarioa bezala da beraz. Geroari begira, bere jarraipenerako, aholku zuhur eta emankorrik uzten digula iduri zait, eta nabarmenen ateratzera saiatuko naiz hemen. Baina lehenik dakusa-

gun aldizkariak agertzen dion laburpena, lagungarri baitzaigu:

Egileak hiru galdera pausatzen ditu. Zer da historiaren funtzioa? Zertarako egin edo eraiki behar da historia? Nolako historia egin behar da? Lehendabiziko galderari dagokionez, egileak historiaren funtzio soziala nabarmentzen du, era berean ez du funtzio kulturala baztertzen, bere aburuz, herri batek bere memoria historikoa eskuratzeko eskubidea du. Bigarren galderari ekitean, historiaren autonomia eta legitimitateaz jar-

dun du. Ezaguna baita boterearentzat, historiak funtzio politiko-ideologikoa betetzen duela. Bada, gure egilearen iritziz, historia-gileak inoren zaindaritzarik gabe eraman behar du ikerbidea. Hirugarrena birformulatu egiten du, galdera honela emanez: posible ote da Euskal Herriko Historia bat, eta horrela balitz nolakoa? Hainbat adibide jarri ondoren, Euskal Herriko historia orokorra/nazionala (ez nazionalista) aldarrikatzen du. Hori egitean, sare historiko-geografiko desberdinak eta ezaugarri sozio-ekonomikoak kontuan hartu behar dira.

Botere publikoak historiaz baliatzen dira maiz agintearen hobeki finkatzeko, batzuetan historia beren beharretara tolesten dute, makurtzen, okertzen. Manexek dei egiten digu ez dezagun ber gisan erantzun, eta bereziki ez dezagun historia nazionalista bat asma, gure ideologiaren zerbitzuko.

Euskal Herriko historia egiterakoan tranpak daude, arriskuak, ikuspegi edo urrasbi-



Errozate Mendian, familiak omenaldia



Lagunen agurra

de uniformista batetik dena begiratzea. Askotan tranpan erortzera bultzatzen gaitu Euskal Herriko historiaz daukagun ikuspegi artifizialak edo irrealak, bakoitzak bere asmoekin eta ametsekin betetzen duena.

Foruen kasua har dezagun. Gai honetaz hitzegiten dugularik, ez ote gara anitzetan erortzen sinplekerietan? Definizio, nozio-ne, kontzeptu edo eduki bera foruei ematea Bizkaitik Zuberoaraino, gauza polita da Euskal Herriak osa dezakeen nazioari pentsatuz, gure gogo-bihotzean dugun Euskal Herria amestuz. Baina historiaren haritik ote dabil ametsa? [...] Hemen badugu tesia baten gaia: Euskal Herriko lurralde desberdinetako legedi desberdinen ikerketa konparatiboa, inoiz ez dena eginik izan. Adibidez, elgarren artean zer dute ikustekorik, zer dute amankomuna Bizkaiko foruak eta Lapurdiko kostumak?

Galdera ona Manexen azken hori, eta horrekin burutuko al da hemen historialariaren solasa, ate bat idekitzen baitigu, historiaren azterketan aurrera joateko? Ez! Ikuspegi zabalago batekin bukatzera utziko dut, are lagungarriagoa baitukegu geroari buruz: «Euskal Herriko historiari aldaketa kualitatibo bat eman behar zaio. Eginiko lana berriz hasi beharko banu, Europako panoraman kokatuta hasiko nintzateke, heldu den belaunaldiaren herritartasuna europarra izango baita. Atalka hasi beharko genuke historia nazionala egiten. Horren egiteko, talde

bat behar da. Birtuala dela hori? Gaur egun bai. Ez dago egiturarik, baliabiderik. Adibidez, Iparraldean ez dugu ezer. Ikasketarik ere ez dago».

Borondatea baldin badugu, aurrera joan gaitzke. Manexen azken liburua bukatu genuen. Egia da hamalau idazle bildu garela hor, tartean gazte batzuk, ofiziokoak. Ez al dira horretan geldituko. Beraz itxaropena hazi dezagun, esperantza, lan eginez.

Agur Manex adiskidea, betiereko mendietan ikusi arte. Milesker handi batekin!



Ezterenzubiko mendian Manexi gorazarre

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkio:

- Goihenetxe familiari

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2006ko urria
Ale-kopurua:	2.100
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Maketazioa:	José Luis Casado González
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2471-1 84-457-2475-4
L.G.:	BI - 2746-06

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística